

TESTUAREKIN EGITEKO JARDUERAK

AITOR ETA MARRAZKI-LEHIAKETA

Jarduera honen bidez landu ditzakezun edukia:

Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala eremua:

1., 2., 3. eta 4. multzoak.

Ingurua ezagutzea eremua: 2. multzoa.

Hizkuntzak: **Komunikazioa eta irudikapena** eremua:

1., 3. eta 4. multzoak.

IRAKURKETA-FITXA:

AITOR ETA MARRAZKI-LEHIAKETA

Beharko dugun materiala

«Aitor eta marrazki-lehiaketa» ipuina (Eranskina eta [esteka](#)).

Aurretiazko oharra

Jarduerak xedea du «prozesu» batean sakontzea: adiskidetasunean. Prozesu horrek barne du beste pertsona hori ezagutzea, eta adiskide-taldea finkatu eta bateratzea.

Ipuinean, zehazki, ikasleak bultzatu nahi ditugu gogoeta egitera, gai honi buruz: garrantzitsua dela **lagun-talde bateko kide izatea, eta taldean lan egin eta lorpenak ospatzea**.

Garapena

- Irakurri hurrei «**Aitor eta marrazki-lehiaketa**» testua.
- Behar izanez gero, zenbait galdera egin diezazkiekegu ikasleei, ipuina irakurri eta gero. Horrela, istorioa behar bezala ulertu dutela ziurtatuko dugu. Esaldi bakoitza entzun ondoren, **zuzena ala okerra** den erantzun beharko dute.
 - Aitorri ez zaio marraztea gustatzen.
 - Aitor aukeratu zuten, lehiaketan ikastola ordezkatzeko zuen marrazkia egiteko.
 - Aitorrek bere kabuz egin nahi zuen marrazkia.
 - Ikasle guztiek, bat eginda, horma-irudi bikain bat margotu zuten.
 - Ikastetxeak ez zuen marrazki-lehiaketa irabazi.
 - Beste zerbaitek garrantzi handiagoa zuela ikasi duten: ongi pasatzeak eta gauzak taldean egiteak.
 - Ikasle guztiek ikusi zuten adiskidetasuna dela saririk onena.
- Behin ipuina irakurrita, egin gogoeta hurrekin, gai honi buruz: talde-lanean jardutearen eta taldean eskuratutako lorpenak ospatzearen garrantziaz. Helburu horretarako, era honetako galderak egingo dizkiegu:
 - Nola duzue nahiago gauzak egitea: bakarrik, ala taldean?
 - Zer alde dago gauzak bakarrik edo taldean egitearen artean? (Besteak beste, taldean lagundu egin diezaguketela zerbait

egiten dagoeneko badakitenek). Beste zenbait ekarpen egiten utziko diegu.

- Aitorrek gainerako ikaskideek baino hobeto marrazten du. Zuen ustez, lehen saria lortuko zukeen, marrazkia bere kabuz egin izango balu?
- Zuen ustez, zer ekarpen egin ahal izan ote zioten beste hurrek horma-irudiari?
- Gogora ekarri ipuinaren amaierako errima, eta irakaspena:

Saria genuen lortu taldean genuelako marraztu.

Egin baitugu partekatu, jostatu eta gozatu.

Saria dugu merezi eta ezin da handiagorik irabazi:

talde-lanarena batetik eta ADISKIDETASUNARENA bestetik!

- Zerbait oker ateratzen bazaigu eta triste bagaude, kontsola al dezakegu geure burua? Zer eduki nahi izaten dugu une horietan?
- Eta gauzak ondo ateratzen bazaizkigu, norekin ospatzen dira hobeto? Norbere buruarekin, ala besteekin?

ERANSKINA

AITOR ETA MARRAZKI-LEHIAKETA

Aitorrek biziki atsegin du marraztea, txiki-txikia zenetik. Koloreen bitartez adierazten du zer sentitzen duen.

Plastikako eskolak ditu gustukoen, eta bere artelanez harri eta zur uzten dituzte guztiak.

Behin, irakasleak hurrei kontatu zien lehiaketa batean aurkeztuko zirela, eta, bertan... herriko ikastetxe guztiek parte hartuko zutela!

Ikasleek berehala pentsatu zuten Aitor aukeratuko zutela, eskola ordezkatzeko marrazkia egiteko. «Ez du parekorik!», zioten. «Berak marrazten badu, irabazi egingo dugu. Ziur!».

Irakasleak horren berri eman zion Aitorri: marrazkia egiteko aukeratu zutela. Hura, ordea, goibeldu egin zen, alaitu beharrean.

Izan ere, marraztea biziki atsegin zuen arren, nahiago izaten zuen lagunekin jolastu, eta jarduerak taldean egin.

—Zer duzu, Aitor? —galdetu zion irakasleak—. Ez al zaitu alaitzen parte hartu ahal izateak?

—Bai, baina ez zait bakarrik parte hartzea gustatzen. Nik nahiago nuke beste ikaskideek ere nirekin batera marraztuko balute.

—Hori ideia bikaina! —esan zuen irakasleak—. Halaxe egingo dugu! Gainera, gauzak partekatuz gero, are dibertigarriagoa eta aberasgarriagoa da guztia.

Paper-zati handi bat zabaldu zuten jolastokian, eta ikasle bakoitzak, hoberen zer zekien egiten, horixe marraztu zuen. Hala jardun zuten pintatzen, dela pintzelekin, dela eskuekin... eta haien arropa eta aurpegiak pinturaz blaitu zituzten, oso-osorik. Zeinen ongi pasatu zuten! Aitor zoriontsu zen!

Horma-irudi bikain bat egin zuten: emaitza originala zen, ederra, eta kolore askokoa.

Hala ere, ez zuten lehiaketako lehen saria lortu.

Baina gutxienekoa zen hori. Garrantzi handiagoa zuen beste zerbaitek: partekatu egin zuten, jostatu egin ziren eta taldean ospatu zuten saria lortu izana. Baina ez lehiaketan banatutakoa, benetako saria baizik: ADISKIDETASUNAREN saria.

**Saria genuen lortu
taldean genuelako marraztu.
Egin baitugu partekatu, jostatu eta gozatu.
Saria dugu merezi
eta ezin da handiagorik irabazi:
talde-lanarena batetik
eta ADISKIDETASUNARENA bestetik!**

ADISKIDETASUNAREN HORMA-IRUDIA

Beharko dugun materiala

Paper jarraitua (egokien deritzogun tamaina), arkatzak eta margoak.

Aurretiazko oharra

Horma-irudia egiteko jarduera baliatuko dugu ipuinaren mezua helarazteko: garrantzi handia duela taldean lan egiteak, eta adiskideak garela ospatzeak.

Garapena

- Taldean bilduta, eskatu hurrei esateko zein den adiskideak edukitzearen alderik onena. Idatzi arbelean hurrek zer dioten, erantzun ahala.
- Zenbait ideia bildu ondoren, eskatu guztien artean honi buruzko ideiak eta adibideak emateko: ea nola irudika daitekeen hori guztia marrazki batean.
- Gero, taldeari eskatuko diogu lanari ekiteko. Horma-irudi batean irudikatu beharko dute, elkarrekin margotuz, aipatu duten hori guztia.
- Behin lana amaitu eta gero, ikasgelan zintzilikatuko dugu, eta guztion artean ospatuko dugu taldean egindako lan bat dela, eta **adiskidetasunaren adierazgarri** dela.